BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1281

EBAZPENA, 2013ko otsailaren 27koa, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearena. Honen bidez, aldatu egiten da Gaitek Programaren 2013ko laguntzetarako deialdia egiten duen 2012ko azaroaren 14ko Ebazpena. Deialdi hori produktu berriak garatzeko proiektuak egiteko Gaitek laguntza-programa arautzen duen Aginduan ezarritako esparruan egin zen.

2012ko abenduaren 28ko EHAAn, 251. zenbakian, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearen 2012ko azaroaren 14ko Ebazpena argitaratu zen. Ebazpen horren bidez, aditzera eman zen Gaitek Programaren 2013ko deialdia, eta, han, eskabideak aurkezteko epea ezarri zen.

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzea beharrezko ikusten denez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearen 2012ko azaroaren 14ko Ebazpenaren 3. artikuluko 2. paragrafoa aldatzea. Ebazpen horren bitartez, aditzera ematen da produktu berriak garatzeko proiektuak egiteko Gaitek laguntza-programaren 2013ko deialdia. Aldaketa horren ondorioz, honela idatzita geratzen da paragrafo hori:

«2.– Eskabideak aurkezteko epea deialdia egiteko ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da eta 2013ko apirilaren 12an bukatuko da».

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 27a.

Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordea,
ESTIBALIZ HERNÁEZ LAVIÑA.